



IRAKUR LIBURUAREN LANERAKO GIDA

1. KOKAPENA

Literatur lana hobeto ulertzeko eta kokatzeko lagungarri izan daitezkeen informazioak eta zertzeladak bilatu: **idazlea** garaia, gizarte-egoera, **generoa**. Aipa itzazu genero horretan irakurri dituzun beste titulu edo idazle batzuk.

Espresaerak : deskribapena, elkarrizketa, narrazioa...; zeinek du pisurik handiena? Hiru horietan aurkitu dituzun alderdi edo gauzarik nabarmenenak azaldu.

2. EDUKIA

Zein da liburuaren **gaia** -edo gaiak? Hau da, zertaz edo zeren inguruan ardatzen da istorioa? Zer iradokitzen du liburuaren **izenburuak**?

Zein da **argumentua**? Labur esanda, zer gertatzen da istorioan? Kontuan izan argumentua azaltzeko gertaera nagusiak baino ez dituzula bildu behar.

Pertsonaiak landu. Batetik, protagonista eta antagonista -baldin badago-; bestetik, zure interesa piztu duten beste batzuk. Baten batekin identifikaturik sentitzen zara?

Nor edo nortzuk dira **narratzaileak**, hau da, istorioa kontatzen dutenak?

3. FORMA

Zailtasunik edo berezitasunik aurkitu duzu hizkuntzaren aldetik? Zelakoa da lexikoa? Eta **hizkuntza**, oro har? Zein **hizkera** darabil narratzaileak eta zein hizkera darabilte pertsonaiek?

Aztertu **denbora**: erritmoa eta hurrenkera.

Espazioa: leku konkretuak edota sinbolikoak.

4. IRITZIA

Egizu liburuan gustuko eta ez hain gustuko dituzun alderdien balantze bat. Arrazoitu zure kritikak edo zure laudorioak. Azkenik, liburuaren gaia, istorioa, tratamendua eta idazlearen edo pertsonaien jokabideak eta iritziak aintzat harturik, emazu zeure iritzia argudio sendo eta ondo azalduak erabiliz.

5. BIBLIOGRAFIA

Kontsultarako erabili dituzun liburu guzti-guztien datuak: Titulua, IDAZLEA eta (Argialetxea) ondo bereiziz.